

TXALAPARTA FESTA, DATORREN OSTEGUNETIK LARUNBATERA

Joxanton Artzeren hitzaldiak hasiko du ostegunean Txalaparta Festa, bere anaia Jexuxi eskainitakoa

■ Osteguneko hitzaldia 19:30etan da, Biterin ■ Ostiralean 'Denborak' izeneko saio berezia eskainiko du 'Aztarnak' Kolektiboak, 19:30etan, Biterin ■ Larunbatean Festa Nagusia, 18:00etan hasita, Tilosetan.

AURTENGO Txalaparta Festa datorren ostegunean hasiko da, eta larunbat arte iraungo du, urteroko ohitura den bezala. Aurten 17garren edizioa du Txalaparta Festa eta iaz hil zen Jexux Artze txalapartariari eskaini nahi izan diote aurtengo edizioa.

Hernani Musika Eskolak eta Ttakun Ttan Ttakun txalaparta taldeak elkar-lanean antolatutako Festa urteroko egiturari eutsiko dio aurten ere. Horrela, ostegunean hitzaldia izango da, 19:30etan Biterin. Hizlaria Joxanton Artze da eta bere anaia Jexuxi eskainitako hitzaldia emango du: *Ibarrean zeharka-meharka, mendian gora eta behera.*

Ostiralean saio berezia izango da Biterin, 19:30etan. Aztarnak taldeak eskainiko du *Denborak* izeneko saioa. Jaiotzatik hasi eta heriotzera bitarteko bidea egingo dute txalaparta, bibolina eta aho-tsaren bitartez. Ostiral gaue-



Txalapartari gazteak, iazko ekitaldi berezian.

an txalaparta eta DJen musika nahastuko dira Goiz Argi tabernan: *Txalaparta Party Aparta*. Afalondon.

Larunbatean Festa Nagusia izango da. Arratsaldeko 18:00etan Sagardo Probaketa izango da Tilosetan, txistu-

lari, albokari eta trikitilariak lagunduta, eta txalaparta bat egongo da jarrita, animatzen den edozeinek jotzeko. Ondoren herri-afaria egingo da. Afalondon, urtero bezala, ekitaldi nagusia egingo da Tilosetako kioskoan, Euskal

EGITARAUA

Maiatzak 22, osteguna, 19:30etan, Biterin
Hitzaldia: Ibarrean zeharka-meharka, mendian gora eta behera. Joxanton Artze

Maiatzak 23, ostirala, 19:30etan, Biterin
Ekitaldi Berezia: Denbora txalaparta emanaldia. Aztarnak Kolektiboak.
00:00etan Goiz Argin
Txalaparta Party Aparta

Maiatzak 24, larunbata, 18:00etan, Tilosetan
Sagardo probaketa, Txalaparta erromeria, txistu, dultzaina..

21:00etan, Tilosetan
Herri Afaria

Afalondon:
Jaialdi Nagusia. Bertsolariak, Zuaznabar eta Goikoetxea familietako txalapartariak, Gasteizko Kolpez Kolpe, Ziburuko txalaparta eskola, Uharteko Zurgune, Sestaoko Zugarramurdi, eta Gipuzkoako Kiroketa eta Hernaniko Ttakun Ttan Ttakun taldea.

Herri guztitik etorritako txalapartariekin. Ekitaldi honek egingo zaio omenaldia Jexuxi Artzeri.

Euria ariko balu, Elizatxo ikastolako tapatutako patioan egingo dira larunbateko ekitaldi guztiak. □

Hernanik 3-2 irabazi du Zubipeko azken partiduan



Jon Martin trofeoa eskutan duela.

HERNANIK irabazi egin du Zubipen jokatu-tako azken partidua eta bastante itxuratu dute aurtengo denboraldia. Oraindik bukatu ez duten arren, gustora egoteko moduan daude Eskisabelen mutilak gaur lortu duten emaitzarekin. Zestoaren kontrako partidua zuen gaur Hernanik eta 3-2 irabazi dute. Orain partidu bakarraren faltan daude hernaniarrak, Trintxerperen aurka jokatu beharrekoa hain zuzen ere.

Bestalde, aurten Zubipen jokatzeko azken partidua izanda, sari berezi bat eman dute gaur partidu hasieran. Saria Jon Martinek jaso du, aurtengo denboraldiko jokalaria erregularrenari. Trofeoa Peña Zubipek eman dio Jon Martini.

Ur jolasak umeentzat gaur kiroldegian

UR jolasak izango dira gaur igerrilekuan, umeentzat. Goizeko 10:30etatik 12:30etara. Igeri egin nahi duenarentzat ere izango dira kaleak. □

Eskolarteko futbol finalak gaur Zubipen

GAUR jokatu dira Zubipen, Alebin mailako futbol txapelketako finalak. Zortzigarren postua bitartekoak erabakiko dira gaur, 10:00etan hasita, eta bi finalak 12:00etan jokatu dira. Nesken finala Langile eta Elizatxok jokatu dute; mutilena, Elizatxo Ak eta Urumea Bk. 13:00ak inguruan izango dira saribanaketak. □

OSIÑAGA

Hauteskondeei buruzko informazioa, gaur

HAUTESKUNDEEI buruzko informazioa emango dute gaur, Osiñaga auzoan, Udaleko ezker abertzaleko bi kidek. Hitzaldia Harriatsuko eskolan izango da eguerdiko 12:00etan. □

ARRANTZA

Gaur da Txantxangorriko Arrantza txapelketa

GAUR da urteroko Txantxangorriko arrantza txapelketa. Goizean goiz aterako dira arrantzaleak eta eguerdira bitarte saiatuko dira piezarik ederrena harrapatzen. Ondoren saribanaketa Txantxangorri elkartearen bertan. □

IGANDE MUSIKATUAK

'DJ Makala'k jarriko du musika gaur Tilosetan

IGANDERO DJak entzuteko aukera dago Tilosetan. *DJ Makala* jarriko du gaur musika: reggae, rocksteady, dub... Gaur, Tilosetan, 18:00etatik 20:00etara. □

www.kronika.net
kronika
Intemeten helbide berrian

PROKOLOR ZENTRUA
PL
Landaribar, s.l.
▶ Pintatzeko ekipoak
▶ Industri eta dekoraziorako pinturak
▶ Pintatutako paperak
Kardaberaz 45 - Telf.: 943 55 21 31 - Hernani

Jatetxea
Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
Larunbatetan itxia

SANTA BARBARA
PEUGEOT

Tailerrak: Laramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 ☎ 943 551139 / 943 551979
Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskuzkoen aldatzen ditugu

Jeep Cherokee 2.5	TDI	SS-BB
SAAB 2000 Coupe		1.995urtekoa
Fiat 1 -	Diesela	GI-AY
Opel Astra	Diesela	NA-AK
Renault Megane Coupe	Sport	SS-BJ
Renault Express	Diesela	SS-AS
Lada Niva	Gasolina	SS-AP

1.000 eta 2.000 eurotan beste hainbat kotxe
...eta hainbat kotxe merke

ZIMAK
ILEAPAINDEGIA
Iturregi, 2 - 1ºB
Hernani
Tel.: 943 556556



Gobernu Taldeko bederatzi kideetatik zazpi, legislaturaren balorazioa egin ondoren.

Gobernu Taldeak balorazio ona egin du 4 urteko legegintzaldiarena

- Egindako gestiorik garrantzitsuenak azpimarratu zituzten ostiralean, arloz arlo
- Gustora egon arren, orokorrean gestio gogorra izan zela esan zuten.

SOZIALISTA Abertzaleak Alderdiko Gobernu Taldeak ostiralean egin zuen 4 urteko legegintzaldiari buruzko balorazioa. Orokorrean balorazio ona egin zuten Gobernu Taldeko kideek, eta azpimarratu nahi izan zuten saiakera haundiena egin dutela herria eta Udaletxearen arteko harremanak sakontzen.

Mertxe Etxeberria Alkateak esan zuenez, oraindik erabat finkatu gabe gelditu bada ere, pausu haundiak eman dira herriko taldeak kontuan hartuta Udal gestio on bat egiteko. Bestalde, Alkateak azpimarratu nahi izan zituen lorpenak honakoak izan ziren: garapen ekonomikoa hobetzeko bideak egitea (industrialdeak); Gizarte Ongintza arloan egindako aurrerapausuak; emakumeen arazoak egokiago tratatu ahal izateko sortutako Kontseilu berria eta lanean jarritako teknikaria; eta etxebizitzaren arazoa gestionatzeko garaian, Udala sujeto aktibo bihurtu izana.

Mila Apeztxea alkate-

ordeak euskara, hezkuntza, kirola eta kulturari buruz esan zuen tokian tokiko agenteekin harremanak bultzatu direla, eta horretarako sortu direla: Bai Euskarari akordioa, Hernaniko kirol taldeen batzordea, eta euskara eta kulturaren inguruan lanean ari diren taldeei jarritako lokalak. Gazte Txokoa sortu izana, kultur etxeko aulkiak, eskola kiroleko programa indartzea, kiroldegiko berrikuntzak eta abar aipatu zituen Apeztxeak, adibide bezala.

Manuel Fraile Hirigintza Saileko buruak esan zuen oso gestio gogorra izan dela legegintzaldi honetan hirigintza mailan. Frailek Udaletxetik kanpoko instituzioen oposizio gogorra salatu zuen, eta aipatu zuen lan izugarria izan dutela "aurreko korporazioak egindako hanka sartzeak eta kontraesanak konpontzen: Akerregiko industrigunea hainbeste denboran horrela edukitzea, esaterako". Dena dela, Fraile gustora azaldu zen egindako proiektuekin: Puig,

Ereñotzu, Txantxila, Montes, Aiako Parke naturalari gehitutako terrenoak, Nere Borda, Ave Maria eta Politena parkeak, AHTren kontra egindako lana, Alde Zaharra berritzeko obrak, eta abar. Frailek aipatu nahi izan zuen azkenik: "talde bat izan gara legegintzaldi honetan, eta egindako gestio onarengatik ilegalizatzen gaituzte".

Jesus Rebollo Zerbitzuetako buruak aipatu zituen Udalean aparejadore berri bat eta bi langile berri jarri izanaren garrantzia; auzo guztietan egindako berrikuntzak, bai saneamendu eta bai akzesoa erreztaren aldetik; base-rietarako bideak konpontzea eta seinalizatzea; herri lurak txukuntzea, aparka lekuak egitea, auzo elkarteekin izandako harremanak, komun publikoak berriro irekitzea...

Bukaeran guztiek aipatu zituzten bidean gelditu diren proiektuak: Harriatsuko eskola, Atsegindegi egokitzea, Kultur Areto handi bat egitea, komertzioetako teknikaria... □

EA-EAJK salatu du Zaharren Egoitzak arreta gehiago merezi duela

- Koalizioaren iritiz, "Gobernu Taldea Diputazioarekin liskarrean ibili da azken lau urte hauetan", eta "gestio politiko horren biktima kalidadea izan da".

EA-EAJ kandidaturak prentsa oharrean kaleratu duenez, ez daude batere konforme Gobernu Taldeak azken lau urte hauetan Zaharren Egoitzarekin egindako gestio politikoarekin. Salatu dutenez, gestio politiko horren biktima kalidadea izan da, eta "norena den konpetentzia eta nork finantzatu behar duen gora eta behera, ez dira Zaharren Egoitzak dituen beharrak behar bezela asetzen saiatu ere egin", dio EA-EAJK.

Koalizioaren iritiz, "hirugarren adinarekin oso konprometitu egon da Hernaniko herria azken ia 500 urteetan, eta jarrera integratzaile horrek definitu du herriaren beraren izaera. Gobernu Taldeak nahiago izan du Diputazioarekin liskar bila ibili, herri izaerari leial eutsi baino". Bestalde, prentsa oharra azpimarratzen du EA-EAJK eskatutako informebatean, Zaharren Egoitzako gerenteak "atzerapauso kuali-

tatibo" bezala jotzen duela apirilean martxan jarritako antolakuntza berria.

Azkenik EA-EAJK proposatzen du, Ongintza Patronatuak 2002an izandako 500.000 euroko irabaziak herriaren ongizatean inbertitzea, "berezi-ki zaharren atentzioa hobetzeko, behar den pertsonala kontratatzeke eta antolakuntza berriarengatik funtzionamenduan sortu diren zuloak betetzeko". □

■ HITZ BITAN

✓ PLATER TIRATZEA

Euskadiko txapelketan zilarra eta brontzea irabazi dituzte, Loinez eta Barraganek. Joan den igandean jokatu ziren Plater Tiratzearen Euskadiko Txapelketa, Minifoso kategorian. Orokorra Bizkaiak irabazi zuen baina, Loinez eta Barraganek zilarra eta brontzea lortu zituzten, batek 25etik 25 jota eta besteak 25etik 24.



Manu Loinez eta Kristóbal Barragán.

Bestalde, larunbatean Santa Barbaran Foso Unibertsal txapelketa jokatu zen, eta desentpatean erabaki zen irabazlea. Generalean Xabier Mujikak izan zen lehenengoa, 25etik 23 jota; bigarren Luis Garaia, hau ere 25etik 23 jota.

✓ MUSA - SANTA BARBARA

Final laurdenetako partidak datorren astean. Santa Barbarako mus txapelketa final laurdenetan da, eta partidak datorren asteartean eta ostegunean jokatu dira. Partidak: asteartean, maiatzak 20, Jose Luis-Aita / Antton-Jose Manuel, eta Gabriel-Pako / Bitxo-Joakin; ostegunean, maiatzak 22, Sesma-Kaki / Mikel-Olazar, eta Antonio-Erdozia / Satur-Xabier.

✓ UDAL PLENOA

Txantxilako hirigintza hitzarmena onartu du Plenoak. Ostiralean Plenoa izan zen Udaletxean eta 18 puntu zituzten erabakitzeke. Guztiak onartu ziren Plenoan. Horien artean Txantxilako hirigintza hitzarmena Gobernu Taldearen aldeko botuekin eta EA-EAJ koalizioaren kontrako botuekin.

✓ OIALUME

Egan eta DJ Koldo, gaur. Igande eta jaiegunetan dantzaldia izaten da Oialume dantzalekuan. Gaur ere hala izango da, eta giroa alaitzeko bi talde ekarri dituzte: Egan eta DJ Koldo. Gaur arratsaldeko 19:30etan hasita, Oialumen.

✓ ZINEA

'El nucleo' pelikula, gaur, Biterin. Astebururo bezala gaur ere pelikula botako dute Biteri kultur etxean. Gaurko pelikula *El nucleo*. 19:30etan hasita. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
- ▶ Gauzez: Diaz Andoain. Nagusia 19 ☎ 943 592057

IRAGARKI MERKEAK

Etxebizitza salgai Etxeberrin. Prezio interesgarria. Tel: 943 55 36 22. (Bazkari edo afari garaian).

Motoa daulat salgai NSR 75 markakoa. Oso egoera onean dago. Interesatuek deitu: 943 55 17 01

Tabernako sukaldean lan egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuek deitu goizez telefono honetara: 943 556706



XIX MUS TXAPELKETA

ARALAR TABERNA

Maiatzak 19, Astelehena

Teo - Manolo / Jonkar - Joseba
Joxe Inaxio - Katu / Pitxurra - Salba
Kije - Arrieta / Aitor - Alvaro
Iñaki - Alex / Villar - Joxe

Maiatzak 20, Asteartea

Dani - Antonio / Balantxa - Balantxa
Gainza - Perren / Egoitz - Iñaki
Kano - Aitor / Niko - Paste
Ramon - Esteban / Jerri - Amancio

Maiatzak 21, Asteazkena

Martin - Iñaki / Aitor - Peli
Antxon - Joxe Luis / Koldo - Txuria
Javi - Bibi / Manu - Joxe Leon
Josu - Gorka / Joxe - Gerardo

Maiatzak 22, Osteguna

Kebus - Pako / Iñaki - Loren
Goñi - Bilbao / Idiabez - Apeztxea
Ceci - Bitxo / Roberto - Joxe
Iñaki - Joxe Ramon / Javier - Pello